

I. ERANSKINA

OINARRIAK

2019-2020 IKASTURTERAKO BOST ORDUKO LIBERAZIOEN DEIALDIA (2019ko urritik-2020ko otsailera)

1.- Helburua

Deialdi honen xedea 5 orduko moduluetan euskara ikastaroetan parte hartzea da. Nahi izanez gero, liberazio osoa denean, barnetegiko aukera ere badago.

2.- Ordu kredituaren sistema

2005eko azaroaren 30eko aginduaren bidez IVAPEk eta UPV/EHUk sinatu zuten hitzarmenari jarraituz, **ordu kredituen sistema ezarri zen** (2005eko abenduaren 19ko EHAA (239. zk.), I. kapitulua).

Agindu hori 2006ko irailaren 30ean sartu zen indarrean, hau da 2006/2007 ikasturtean. Horrela, bada, **ordu kreditu negatiboa** dutenek ezin izango dute liberaziorik izan 2019/2020 ikasturterako.

3.- Betebeharreko Baldintzak

Deialdian parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira:

1. UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko kidea izatea (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edo bitarteko funtzionario egonkorak edo lehentasunezko lan-poltsakoak, aldi baterako lan-kontratua duen langilea lanpostu hutsean edo langile egonkorak).
2. Salbuespenak:
 - 2.1. onartuak izateko aukera izango dute ordezkapen sindikala egiten ari diren bitarteko funtzionarioek, betiere bi urte baino gehiago daramatzatenean egoera horretan. Eta noski, plangintzaren helburu nagusien irizpideak kontutan izanda: derrigortasun data eta unitate mota.
Arestian, lehenengo puntuko parentesi artean agertzen direnen tratamendu bera izango dute hauek.
 - 2.2. ordezkia egiten ari diren bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langile laboralak onartuko dira, betiere langile horiek 3 urteko zerbitzuak badituzte UPV/EHUn. Beharrezkoa izango da, baita ere, lan-kontratuak indarrean jarraitzea liberazioa hasten den momentuan. Liberazioa, kontratuaren edo izendapenaren iraupenaren menpe egongo da.
3. Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta edo baliokidea den agiririk ez izatea.

4.- Irizpideak lehentasun mailaren arabera

4.1. Euskara eskoletara joateko baimenak emateko irizpideak plangintzaren helburu nagusiei lotuta daude eta honako hauek dira lehentasunaren arabera antolatuak: lanpostuaren **derrigortasun data** (gaindituta, gainditzeke, data gabekoa), lanpostua kokaturiko **unitate**

mota (AE, A, B, C, D) eta eskatzailearen **lan egoera** (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean, aldi baterako lan-kontratua duen langilea lanpostu hutsean). Lehenetsun honi jarraituko zaio:

- 1) Derrigortasun data gainditua duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan-kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- 2) Derrigortasun data gainditua duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan-kontratua duten langileak direnean.
- 3) Derrigortasun data oraindik gainditu gabe duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan-kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- 4) Derrigortasun data oraindik gainditu gabe duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan-kontratua duten langileak direnean.
- 5) Derrigortasun data ez duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan-kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- 6) Derrigortasun data ez duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan-kontratua duten langileak.
- 7) Arestian aipatzen diren ataletan sartzen ez diren gainontzeko langileak, eta honako irizpideen arabera:
 - a. Euskara ikasten egon izana 2017/2018 edo 2018/2019 ikasturtean (lehenetsuna dute 2018/2019 ikasturtekoek 2017/2018koen gainetik)
 - b. Gainditutako euskara maila (lehenetsuna mailarik handienak du)
 - c. UPV/EHUn lan egindako egunak.

Euskara ikasten egon izana eta maila, gainontzeko langileentzat ere kontuan hartuko da.

Oharra: Ikastaro hauetan parte hartu ahal izateko erreferentziatzat hartu behar den derrigortasuna jabearen lanpostuari dagokiona da eta ez lanpostu hori behin-behineko izaeraz betetzen duena (Zerbitzu betekizunetan dauden funtzionarioak, etab.)

4.2.- 2018/2019 ikasturteko lehen lau hilabetekoan 5 orduko liberazioa izan duten eskatzaileen kasuan:

- Lehenetsuna izango dute %100 probetxua izan duten kideek, hau da, egindako modulu guztiak gaindituak izan dituztenek.
- Baztertuak izango dira aipatutako aldi horretan modulu bat ere gainditu ez dutenak. Halere, onartu ahal izango da eskaria eskatzaileak euskalduntze prozesuan eduki duen bilakaera aztertu ondoren.

5.- Eskaera

5.1.- Eskaerak betetzeko zehaztasunak

1. Liberazio modulu bakoitzeko eskari bana bete beharko da (5 ordukoa edo barnetegikoa, 2 ordu lanorduetan, 2 ordu lanorduz kanpo/autoikaskuntza/beste).

2. Komeni da beste ikastaroetan ere izena ematea, 5 ordukoan onartuko ez zaituztela ustez gero.
3. Eskari orrian eskatzen diren datu guztiak egon beharko dute zehaztuta, eta derrigorrez **zein herritan, zer ikastaro mota eta zein ordutegitan** eskatzen den.

5.2.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskariak aurkezteko epea **maiatzaren 6tik 17ra** bitartean izango da (biak barne).

Ez da epez kanpo aurkeztutako eskaririk onartuko.

Oharra: eskariak egiteko azken eguna helduta ez baduzu nagusiaren baimenik lortu, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango dituzu baimen horiek. Baina eskaria bera, sinadura gabe, epe barruan bidali beharko duzu.

5.3.- Eskaerak non aurkeztu

Derrigorrez, eskaera guztiak **Erregistro Orokorrean** aurkeztu behar dira.

Oharra: nagusiek baimena ukatuz gero, txostena egin beharko dute **baimena ez emateko arrazoiak azalduta. Langile bakoitzeko txosten bat helarazi beharko da. Ez dira zerbitzu oso baterako txosten bateratuak onartuko.** Txostenak Euskalduntze Batzordeari bidali beharko zaizkio, 2 laneguneko epean, Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzak 5 orduko liberazioetarako onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duenetik kontatzen hasita. Epe hori erreklamazio egunekin bat etorriko da (maiatzaren 28 eta 29) eta erregistro orokorretik bidaltzeaz gain, posta elektronikoz aurreratu beharko dira helbide honetara: euskara-plangintza@ehu.eus.

6.- Lizentzia erabiltzeko baldintzak

6.1.- Klaseen egutegia eta egindako huts egiteak zuritzea

Ikastaro hauek eskatzen dituzten langileek IVAPek jartzen duen egutegia onartu behar dute, IVAPek antolatutako taldeetan baldin badaude. IVAPek antolatutako taldetik at baldin badaude euskaltegiaren egutegiari jarraituko diote.

Hau honela, lanorduetan euskara ikasteko onartua izan den langileak ezin izango du beste eratako ikastarorik egin ezta oporretarako egunik hartu (ezinbesteko kausak salbu), baldin eta horrek euskaltegiko klaseetara huts egitea eragiten badio. Horrelakoetan, huts egiteak ezin izango dira zuritu.

Gogorarazten zaie ikasle guztiei **huts egite guztiak zuritu behar dituztela** Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzan eta euskaltegian ere abisatu.

Hutsak gertatu direnetik, **hilabeteko epea** egongo da berauek zuritzeko. Lizentziei eta baimenei buruzko arautegian kontutan hartzen diren asistentzi faltak zuritu ahal izango dira bakarrik, bertan ezarritako ziurtagiriak aurkeztu behar direlarik.

Egindako hutsak ezarritako epean zuritzen ez dituen langileak, eskolatik kanpo utziko ditu Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzak.

6.2.- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko froga

Liberazio eta ikastaro hauetan onartuak diren langileek hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko aldiro egiten diren frogetara aurkeztu beharra izango dute, beti ere ondoren aipatuko ditugun azpimailak egiten ari badira:

- **Lehen hizkuntza-eskakizunera** aurkezteko, **B1.1.** edo **B1.2** azpimailak egiten egotea.

- **Bigarren hizkuntza-eskakizunera** aurkezteko, **B2.1** edo **B2.2.** azpimailak egiten egotea
Hala eta guztiz ere, lehenengo hizkuntza eskakizuna egiaztatu barik eta puntu honetan aipaturiko urratsen bat egiten ari diren langileek, lehen hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko frogara edo bigarren hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko frogara aurkezteko aukera izango dute.

- **Hirugarren hizkuntza-eskakizunera** aurkezteko, **C1.2** azpimaila egiten egotea.

Hala eta guztiz ere, bere lanpostuan 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu barik daukan langileak C1.2. azpimaila egiten ari bada, derrigorrez 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko egiten diren probetara aurkeztu beharra dauka.

Irizpide hau ez betetzeak liberazio berririk ez eskuratzea ekarriko du.

6.3.- Liberatuta dagoen batek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen badu.

Langileren batek ikastaro honetan diharduen bitartean dagokion lanpostuko HE egiaztatuko balu ikastaroari uko egingo lioke beti ere IVAPek langileak utzitako hutsunea ordezkatzekotan. Kasu honetan langileak lanorduz kanpo jarraitzeko aukera dauka. Hutsunea ordezkatzeko aukera IVAPen aldetik ezinezkoa bada, jarraitu ahal izango du lanorduetan (5 ordutan) ikastaroa bukatu arte. **Jarraipen hori nagusiaren oniritziarekin izango da.**

Oharra: Erreferentziazko hizkuntza eskakizuna bigarrena izango da lehenengoa eskatzen zaien langileentzat.

7.- Onartuen zerrendak

Aurkezteko epea bukatu eta eskariak aztertu ondoren, onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratuko dira Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzako ohar tauletan eta baita Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzaren web orrian ere:

<http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/home>

Behin-behineko zerrendak **maiatzaren 27an** argitaratuko dira eta **maiatzak 28 eta 29** izango dute interesatuek erreklamazioak aurkezteko epea. Berauek idatziz zuzendu behar zaizkio Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeari UPV/EHUko erregistroen bitartez eta posta elektronikoz aurreratu helbide honetara: euskara-plangintza@ehu.eus

Erreklamazioak aurkeztu ondoren, eta guztiak aztertu ondoren, behin betiko zerrendak **ekainaren 6tik** aurrera argitaratuko dira lehen aipatutako iragarki tauletan, Euskalduntze Batzordea bildu ondoren.